



**2015 URTEKO TXOSTENA  
MEMORIA ANUAL 2015**



**Colegio Oficial de  
Ingenieros Industriales  
de Bizkaia**

**Bizkaiko  
Industri Ingeniarien  
Elkargo Ofiziala**





## AURKIBIDEA

Orr.

### DEKANOAREN AURKEZPENA

1.	KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA . . . . .	8
2.	ELKARGOKIDETZA ETA KUOTAK . . . . .	10
3.	PROZEDURA INFORMATZAILEAK ETA ZIGORTZAILEAK . . . . .	13
4.	KONTSUMITZAILEEK EDO ERABILITZAILEEK AURKEZTUTAKO KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK . . . . .	14
5.	KODE DEONTOLOGIKOA . . . . .	14
6.	GOBERNU BATZORDEA: BATERAEZINTASUNAK . . . . .	14
7.	ARLO PROFESIONALA . . . . .	14
7.1.	LAN PROFESIONALEN TRAMITAZIOA . . . . .	15
7.2.	ERANTZUKIZUN ZIBIL PROFESIONALEKO ASEGURUA . . . . .	17
7.3.	PROFESIONALEI ETA ERABILITZAILEEI AHOLKULARITZA ETA ARRETA . . . . .	18
7.4.	ARAUDIA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA . . . . .	18
7.5.	ENPLEGURAKO JARDUERAK . . . . .	19
7.6.	PRESTAKUNTZA JARDUERAK . . . . .	22
8.	GIZARTE EKINTZA . . . . .	26
8.1.	MUTUALITATEA . . . . .	26
8.2.	KULTURA ETA GIZARTE EKINTZA . . . . .	26
8.3.	ELKARTASUNA: ICLI . . . . .	27
8.4.	EUSKAL KULTURA . . . . .	28
8.5.	BGAE . . . . .	29
8.6.	DYNA ALDIZKARIA . . . . .	30
9.	KALITATE ETA INGURUMEN SISTEMA INTEGRATUA . . . . .	31



10. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO SISTEMAK	.	.	.	31
11. HARREMAN INSTITUZIONALAK	.	.	.	33

## BIZKAIKO INDUSTRI INGENIARIEN ELKARGOAREN ETA ELKARTEAREN GOBERNU BATZORDEA ETA BATZAR NAGUSIA


Lagun eta adiskide estimatuok:

Beste urtebetez, gure Estatutu eta Barne Araudiek agintzen duten bezala, ekitaldi honetan elkartu gara gure deialdian proposatutako gai ordenako puntuen edukiak aurkezteko. Joan den 2015 urtean egindakoa eta lortutakoa azalduko dizuet, baita 2016 urte honen aurrekaria ere, aurtengo ekitaldirako proposatutako helburuei jarraiki.

Elkargoaren Estatutu berriek Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailaren aurrean egin beharreko inskripzio tramitazioan urrats guztiak gainditu dituzte praktikan, eta azken erabakiaren zain gaude Eusko Jaurlaritzako Sailak berak eskatutako zuzenketa txiki batzuk sartu ondoren.


Gogoan izango duzue iaz data berdintsuetan bi neurri garrantzitsuren berri eman genizuela aurreko ekitaldietako egoera konplexuari eta defizitari ordurako ematen ari ginen erantzuna osatzeko. Laburbilduz, gure erakundeari bi norabideko ikuspegi berri bat ematea zen kontua, Gizarte eta Finantza Ekintzak eta Ekintza Profesionala eta Elkargokoa; baita hirugarren solairuan birmoldaketa obra handi batzuk egitea ere, diru sarrera osagarriak ekarriko lizkiguketenak jarduera ekonomikoen hazkundera ahalbidetzeko. Gure ustez biek in asmatu da eta biak oinarri izan dira egungo abagune ekonomikoak berekin dakartzan arazoak gainditzeko. Izan ere, helburuei begirako kudeaketak helburuak lortzeko laguntza handia den talde lana eskatzen du ezinbestean.

Gainera, 2015ean zehar, aurreko Gobernu Batzordean eta Batzarrean aurreratu genuen bezala, industria jardueran hazkunde txiki bat sumatu dugu, alderdi inbertitzailean ere islatu dena, eta horren ondorioz, 2014an %20 hazi ziren ikus-onespenengatik sarreretan isla izan du. Ondorengo irudiak Euskadiko eta Nafarroako Industri Ingeniariei Elkargoetan eman den joera aldaketa hori erakusten du.



Horrek baikor izatera eraman gaitu 2016rako aurreikuspenak egiteko garaian, eta %10eko hazkundera sartu dugu aurrekontuan, jarduera industrialaren berreskuratze progresiboan konfiantza jarrita. Dena den, denok dakigun bezala, petrolioaren krisiak, altzairuaren gerrak eta beste aldagai batzuek sakon eragin dute eszenatoki ekonomiko globalean, eta gure ehun industrialia serio kaltetu dute, baita inbertsio proiektuak ere.

Igaro diren hilabeteetan urte hasiera zaila antzeman da, iaz hasitako gorakadatik urrun. Dena den, joera hori zuzentzen hasi dela aurreratu dezakegu eta maiatzerako eta ekainerako sarreren aurreikuspenak hobekuntza nabarmena islatuko duela. Beraz, aurrekontuan aurreikusitako helburuak mantentzea posible izango da.




Egoera honek ahalegin are handiagoa eskatuko digu, baina gure esku dagoen guztia egingo dugu lortzarren. Horretarako, elkargoaren gainerako jarduerak balioan jartzeko asmoarekin jarraituko dugu.

Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu pasa den abenduaz geroztik 3. solairuko 400 m<sup>2</sup>-ko gunearen alokairua. Izan ere, erabilgarri geratu ziren erabili gabe edo gutxi erabiltzen ziren espazioak aprobetxatzeko xedez egin ziren obren ondorioz.

Halaber, Prestakuntza programen hazkundera eta garapenean jarraitzen dugu tinko lanean, bai ikastaro propioen gaian, bai kanpoko entitateenetan ere, eskaintzen dituzten ikastaroak gure elkargokideei hurbilduz gure instalazioetan ematen badituzte.

Bi kapituluok 2015eko sarrera gordinetan %15eko hazkundera ekarri dute aurreko urtearekin alderatuz.



Horrela, gastuei eusteko eta murrizteko politika zorrotzarekin 2014ko emaitza nabarmen hobetzen duen ekitaldiaren emaitza globala lortu dugu, bere garaian onartutako 2015eko aurrekontua ere hobetzen duena. 2016rako emaitza guztiz positiboa lortzea jarri dugu helburu gisa, eta zalantzarik ez izan gure esku dagoen guztia egingo dugula hori bete dadin.

Hori guztia, gure Kontu-hartzaileak azalduko dizue zehatz-mehatz.

Zailtasunak zailtasun, Elkargoak ez du bazter uzten prestakuntzarekiko, gazteen enpleguarekiko eta lanik gabe dauden gure kideekiko konpromisoa. Lehenengoei begira, AHALBIDETU Elkartearen Ikasi-Eginez proiektuarekin bat egiten jarraitzen dugu, lehen enplegua bilatzen ari diren gazte graduatuak prestatzen dituen gaitasun pertsonalak izan ditzaten. Gure Lan poltsaren bidez lan eskaintza ugari tramitatzen jarraitzen dugu eta murrizpenak eskaintzen jarraitzen dugu elkargokide egiteko eta prestakuntza kostuei aurre egiteko. 2015. urtean ia 10.000 euro erabili ziren zeregin horietan. Eta alderdi sozialagoan, erabilera askotako guneak erabiltzeko ideia sendotzen ari da, elkargokideak eta haien gonbidatuak giro lagunkoian elkartzeko gunea.

Gure etengabeko kezketako bat da industri ingeniartzako profesionalen belaunaldi berriak Elkargoan integratzea lortzea. Ez da erraza izango lortzea, eta hori sustatzeko xedez, besteak beste, Eskolako ikasleen ordezkariekin izan ditugu bilera batzuk, Estatu osoko ikasleen Kongresu bateko ekitaldi batzuk hartu ditugu egoitzan, Deustuko Unibertsitatean titulazio berdinak ematen dituen Fakultateko irakasle eta ikasleekin egon gara, eta baldintza oso onetan coworking gune bat eskainiko dugu, eta baita mentoring bat ere aholkularitza pertsonala nahi duten gazteentzat. Espero dezagun hori guztia gure egungo zerbitzuen osagarri erakargarria izatea. Bestalde, elkargokide izateko aukera eman zaie industri ingeniartzak ez diren beste ingeniartza titulazio batzuei, betiere industriarekin lotura badute, eta batzuk hasi dira sartzen.



Ez nuke utzi nahi aipatu gabe, besteak beste, Lankidetzarako Ingeniarien GKEk egiten duen lan handia eta ona hirugarren munduko hainbat laguntza proiektutan, Ingeniarien Koroaren kalitate aitortua edo euskarari eman zaion laguntza komunikazio elebidunekin eta, hain zuzen ere, animatzen zaituztet zuen seme-alabek eta bilobek bertan parte har dezaten urteroko narrazioen lehiaketarekin.

Gizartean gure presentzia areagotzeko lerroari jarraiki eta gure Estatutuekin bat, urteroko sari bat sortzeko asmoa dugu, Industri Ingeniaritzako Ospetsuak izenekoak, Industri Ingeniaritzaren sustapenean, laguntzan edo dedikazioan nabarmendu diren pertsonen edo entitateen eskaintzekoak. Arautegi konplikaturik gabe, proposamen eta aurrez aurreko aldarrikapen bidez, azaroko Urteroko Festan oroigarri xume bat emango litzaieke. Gure ustez Gizartearen aurrerapenerako eta oparotasunerako ezinbesteko talde gisa gure burua ezagutzera emateko beste bide bat izan daiteke.

Aurretik esandako guztiarengatik, zuen izenean eskertu nahiko nituzke langile guztiak, une zail hauetan erakunde berriaren eskakizunetara eta ezarritako helburuetara egokitzen jakin dutenak eguneroko zereginetan. Baita elkargokide guztiak ere, baldintzarik gabeko laguntzagatik, bereziki, Batzordeetan parte hartzen dutenak. Izan ere, ondo dakizuenez, bai haiek eta bai Batzorde honetako kideek inolako sari ekonomikorik gabe egiten baitute lan, ikuskatutako kontuetan ageri den bezala.

Nestor Goicoechea Gandiaga  
Dekanoa

2016ko maiatzaren 30ean



## 1. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA

Jarraian aurkezten dira 2015eko Urteko Kontu Konbinatuak, PKF ATTESTek ikuskatuak.



## 2. ELKARGOKIDETZA ETA KUOTAK

2016an aplikatu diren kuoten egitura ondoko jasotzen da:

### ELKARGOAREN 2016ko KUOTAK

2015/11/17ko Gobernu Batzordeak proposatuta eta 2015/11/25eko Batzar Nagusian onartuta

Profesional Elkargokideak/ Atxikiak	Desk.	Hiruhileko kuota Elkargoa+Elkartea	(*)Izen emateko kuota
<b>Arrunta</b> Profesional aktiboak (>30 urte)	-	<b>27,00 €</b>	<b>30,00 €</b>
<b>Junior</b> Profesional aktiboak (<30 urte)	<b>40%</b>	<b>16,20 €</b>	<b>30,00 €</b>
<b>65 urtetik gorakoak**</b> (Jarduera profesionalik gabe)	<b>75%</b>	<b>6,75 €</b>	<b>30,00 €</b>
<b>Langabeak</b> (Hiru hilean behingo egiaztapena agiri ofizial bidez)	<b>75%</b>	<b>6,75 €</b>	<b>15,00 €</b>
<b>Baliaezintasuna**</b> (65 urtetik beherakoak, ≥ %65eko baliaezintasun mailarekin, baliaezintasun handiarekin edo baliaezintasun absolutuarekin)	<b>75%</b>	<b>6,75 €</b>	<b>15,00 €</b>
<b>Tituludun berriak</b> (Titulua lortu ondorengo 1. urtea)	<b>100%</b>	<b>0,00 €</b>	<b>15,00 €</b>
<b>Ikasleak *</b>	<b>100%</b>	<b>0,00 €</b>	<b>15,00 €</b>

\* Izen emateko kuota bakarrik ordainduko da elkargoan lehen aldiz harpidetzean edo baja aldi baten ondoren. Inongo kasutan ez da aplikatuko talde profesional batetik bestera igarotzean.

\*\* Elkargoaren Erantzukizun Zibil Profesionalaren poliza egoera ez-aktibora pasatuko da, eta jardunari utzi arte egindako lanak estaliko ditu. (Ikusi azalpenak eta baldintzak). 65 urtetik gorakoek lanbidearen jarduna utzitakoan BIIEOri jakinarazi behar diote kuota murriztua aplikatzeko eta EZPko Poliza desaktibatzeke.




▪ Altak eta Bajak

2015. urtean zehar ondoko elkargokide eta kide atxikien altak eta bajak eman dira:

	2015	2014	Δ
<b>Altak</b>	<b>136</b>	<b>135</b>	<b>1%</b>
▪ Elkargokideak	97	113	-14%
▪ Kide atxikiak	34	22	55%
▪ Ikasleak	5	0	-
<b>Bajak</b>	<b>148</b>	<b>140</b>	<b>6%</b>
▪ Elkargokideak	142	136	4%
▪ Kide atxikiak	5	4	25%
▪ Ikasleak	2	0	-
<b>Hazkundera 2015ean</b>	<b>-12</b>	<b>-5</b>	
<b>BIIEOko kideak guztira</b>	<b>3.461</b>	<b>3.473</b>	<b>-0,35%</b>


Ondorengo grafikoek elkargokidetzaren bilakaera adierazten dute 2001. eta 2015. urteen artean:



Ikus daitekeenez, 2007-2012 epean elkargokidetzan eman zen jaitsiera handia gelditu egin da azken urteetan, eta eutsi egin zaio halaber bajen kopuruari, joerak negatiboa izaten jarraitzen duen arren.

Bestalde, Industri Ingeniarien elkargokidetzaz **Bizkaiko eskoletako graduatuen %41** da (EHUkoak eta 2015. ikasturteetik aurrera Deustuko unibertsitatekoak ere bai), eta elhuneko hori pixkanaka handitu nahi da industri ingeniarietako profesionalen taldearen ordezkartza osoa lortu arte.


2015ean jasotako altak, osaera eta egiturari dagokionez:



30 urtetik beherako **ingeniari gazteak elkargokidetzaz berrien %56** dira, %42 ikasketak amaitu ondorengo lehen urtean, eta %14 hurrengoetan. Halaber, **langabezian dauden ingeniarien** taldearentzat elkargokide egitea erakargarria da, guztizkoaren **%18**. Izan ere, enplegua bilatzeko eta lan merkatuan uztartzeko erabakigarria izan daitekeen prestakuntza eguneratzeko plataforma bat izan daiteke elkargoa.

Halaber, nabarmentzekoa da **industria eremuaren barruko beste espezialitateetako ingeniarien** sarreraren hazkundera (antolakuntza, elektronika eta automatika, materialak, kimika ingeniariak...). 2015eko alten %25 dira eta sarrera **Tituludun atxiki** gisa eskatzen diote BIIEOri, gainerako kideek bezala, aukera izateko enplegu, prestakuntza eta aseguru zerbitzuez gozatzeko.

Gazte asko bazkide duen arren, gure kolektiboaren adinen egitura oso kontzentratuta dago helduen artean, 40-70 urteko tartean, hain zuzen ere. Gure zerbitzuen orientazioan ekitea beharrezkoa izango da gazteen beharretara egokituz eta horrela haien sarrera erraztuz.



### 3. PROZEDURA INFORMATZAILEAK ETA ZIGORTZAILEAK

2015ean Elkargoak ez du inolako prozedura informatzaile edo zigortzailerik ireki kideen jardunei buruz.

#### 4. KONTSUMITZAILEEK EDO ERABILTZAILEEK AURKEZTUTAKO KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

2015ean zehar kontsumitzaileen eta erabiltzaileen bi kexa tramitatu dira:

- 2015eko urria:

Erreklamazioa BIIEOren komunikazio elektronikoaren sistemaren erorketarik, erabiltzaile guztiak web zerbitzurik gabe eta posta elektronikorako sarbiderik gabe utzi zituena. Telekomunikazioen zerbitzuko hornitzailearen akatsa izanenez, Elkargoari ez dagokio inolako neurri zuzentzailearik hartzea.

- 2015eko azaroa:

Prestakuntza ikastaro batean ikasleen kexa bat jaso zen haien ustez hizlariaren esperientzia eta ikastaroaren edukia programan definitutakoarekin bat ez zetozelako. Ikastaroa baliogabetu, matrikularen dirua itzuli eta inkesta bat egin da egondako akatsak antzemateko. 2016an ikastaroa programatu da berriro, hizlari berri batekin, eta bertaratutakoaren asebetetzean 8,1eko puntuazioa lortu zuen.

#### 5. KODE DEONTOLOGIKOA

Elkargoak ez du inolako aldaketarik egin aurten bere Kode Deontologikoan.

#### 6. GOBERNU BATZORDEA: BATERAEZINTASUNAK

Gobernu Batzordeko kideak ez daude bateraezintasun egoeran eta ez da interes-gatazkarik egon haien jardueran.

#### 7. ARLO PROFESIONALA

Arlo Profesionalak BIIEOko profesionalen (elkargokideak zein atxikiak) lanarekin erlazionatutako zerbitzu guztien kudeaketa lanak egiten ditu.

Gure jardueren helburua da, lehenik eta behin, gizarteari eta administrazioei bermatzea [profesionalen lanean emandako kontrolaren](#) funtzioa betetzen dela, proiektatutako instalazio eta eraikinen edo zerbitzuen erabiltzaile, kontsumitzaile eta pertsonen eskubideak, ondasunak eta osasuna babeste aldera.

Eta bigarrenik, eta garrantzi txikiagokoa ez dena, profesionaleri baliabideak eskaintzea ondokoetan sarbidea izan dezaten:

- Beharrezkoa duten [eguneratze profesionala](#) bermatuko dien prestakuntza,
- Bere jarduera profesionalak derrigorrez eskatzen duen [asegurua](#),
- [Aholkularitza tekniko eta laboraleko](#) zerbitzuak,
- Beren eremu profesionalean eragiten dieten [arauen eguneratzeak](#)
- [Enplegu aukerak](#), publiko, pribatu edo norbere kontura izan



Horrela, BIIEOn kide diren profesional guztien enplegarritasuna eta karrera profesionala ahalbidetuz.

### 7.1. LAN PROFESIOALEN TRAMITAZIOA


BIIEOk Ikus-onespen, Dokumentuen Kontrol, Erregistro eta Trebakuntza Profesionalaren Egiaztatze zerbitzuak eskaintzen ditu; eta horien bidez elkargokideek, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek ondoko bermeetarako sarbidea izan dezakete:

- ✓ Egiaztagiri Profesionala: Gaikuntza eta Trebetasun Profesionala.
  - ✓ Dokumentazioaren zuzentasuna eta osotasun formala berrikustea. (Ikus-onespena eta Dokumentuen kontrola)
  - ✓ Dokumentazioa erregistratzea eta zaintzea.
  - ✓ Erantzukizun Zibil Profesionalaren aseguramendua.
  - ✓ Elkargoaren Erantzukizun Zibil Subsidiarioa.
  - ✓ Egiaztatutako esperientzia profesionalaren ziurtagiria.
- 2015eko emaitzak eta 2016ko aurrerapena

2015ean 2014an hasitako ildotik lan profesionalen tramitazioen hazkundeak jarraitu du, erregistratutako jarduera ekonomikoaren apurkako suspertzearekin bat, batez ere, industria inbertsioen arloan, lan gehienak sustatzen dituen hain zuzen.


	2015	2014arekiko
▪ <b>Tramitazio kopurua</b>	2.541	+5%
▪ <b>Diru-sarrerak</b>	354.871 €	+19%

Igoera hori diru-sarreretan islatuta ikusi da; izan ere, igo egin dira lehen aldiz azken 7 urteetan.





Halere, 2016ko hasiera oso bestelakoa izan da, gure industrietako baten bat horren gogor kolpatu dituen petrolioaren krisiak, altzairuko gerrak eta abarrek eragindako eszenatoki ekonomikoaren ondorioek eraginda agian.

Dena den, hasiera gogorra izan den arren, azken hilabeteek nolabaiteko berreskuratzea erakusten dute, eta baliteke 2016ko ekitaldirako onartutako aurrekontuak marraztutako bideari berrekiteko aukera izatea, ondoko grafikoan ageri den bezala:



- Estatistikak eta Adierazleak

Grafiko hauetan tramitazio motek jarduerari egindako ekarpena eta Arlo Profesionaleko diru sarrerak erakusten dira:



Borondatezko ikus-onespenaren portaerak positiboa izaten jarraitzen du, BIIEOK egindako tramitazioen %75etik apur bat gora dago eta lan profesionalen tramitazioengatik lortutako diru sarrera guztien %33 ingurukoa da.

Halaber, ikus-onespenaren ordezeko zerbitzuen erabilera, dokumentuen erregistroa eta dokumentuen kontrola, finkatzen ari da eta, biak batera, egindako tramitazio guztien %8 dira. Hala ere, diru sarreretarako ekarpena guztizkoaren ia %2koa baino ez da.

Halaber, tramitazioen artean jasota daude kualifikazio tekniko edo esperientzia profesionaleko egiaztagirak, administrazio nazionalak edo nazioartekoek lehiaketa publikoetarako eskatzen dituztenak, beste herrialde batzuetan jarduteko gaikuntza edo errekonozimendu profesionalerako agirak, eta beste era bateko tramitazioak.

Ikus-onespen elektronikoak jarraitzen du izaten gure elkargokideek gero eta gehiago erabiltzen duten tresna, izan ere, funtzionamenduan daraman 7 urte baino gehiagoko tarte honetan egindako guztizko tramitazioen %85 da.

## 7.2. ERANTZUKIZUN ZIBIL ETA PROFESIONALEKO ASEGURUA

18/1997 Legearen 12. artikulua betez, BIIEOK elkargoaren kontrolaren pean dauden bere profesionalen jarduera guztietan kontrolatzen du derrigorrezko aseguratzea betetzen dela.

BIIEOren Erantzukizun Zibil Profesionalaren Poliza Kolektiboak elkargokide guztiei estaldura eskaintzen die ondoko helburuekin:

- ✓ Jarduera librean dabiltzan profesionalei eta ingeniari txikiei merkatu aseguratzaile sartzeko baldintzak hobetzea.
- ✓ Arrazoi ezberdinengatik (langabezia, enpresa aldaketa, itxiera...) enpresaren EZPren estaldura galdu duten profesionalei babesa bermatzea.

- ✓ Enpresaren polizak osatzea eta elkargokideak babestea aipatutako poliza horiek haien interesetarako izan ditzaketen akatsetatik (oinordekoen estaldurak, inhabilitazio profesionala, aldi baterako eremua, eremu geografikoa...)
- ✓ Aseguratzea bermatzea jardun profesionala utzi eta gero, oraindik indarrean egon daitezkeen erantzukizunengatik.

Polizak estaldura eskaintzen die aktibo dauden 2.490 kideri eta egoera ez-aktiboan dauden 942ri.

2015ean BIIEOk 55.254 € bideratu ditu profesionalen, industri ingeniariaren eta ingeniari atxikiaren aseguratzeetara.

BIIEOren ezbehar kopuruak emaitza onak izan ditu azken 5 urtean, ezbeharren tasa %55etik beherakoa izanik.

2016ko ekitaldirako berritzeko baldintzek aldaketa handiak ekarri dituzte poliza kolektiboan, eta estaldurako oinarrizko baldintzek murrizpena jasan duten arren (100.000 €/ezbeharreko), hobekuntza nabarmenak lortu dira estaldura pertsonalaren zabalpenean, antzeko estalduretarako izaten den priman %30 arteko murrizpena lortuz.

### 7.3. PROFESIONALEI ETA ERABILITZAILEEI AHOLKULARITZA ETA ARRETA

Gure elkargokideek, eta baita partikularrek, enpresek eta administrazioek ere, gehien eskatzen duten zerbitzuetako bat da Web bidez, posta elektronikoz, telefonoz edo zuzenean Elkargora iristen diren era ezberdinetako kontsulten erresoluzioa.

Gehien kontsultatzen diren gaiak zerrendatzen ditugu segidan:

Kontsulta gaiak
1. Gaitasun profesionalak
2. Jarduera profesionala (eskakizunak, bateragarritasuna, eredu juridikoak...)
3. Araudiak eta Legeak
4. Erantzukizun Zibil Profesionala
5. Aholkularitza teknikoa (proiektuen edukia eta egitura, txostenak eta beste dokumentu batzuk, Administrazio tramitazioak eta beste batzuk)
6. Ikus-onespenak eta beste tramitazio batzuk (prozedura, ikus-onespen elektronikoa...)
7. Elkargoko Zerbitzuak (Elkargokide txanda, Profesionalen direktorioa, Lan poltsa...)
8. Lan eta Lanbide Orientabidea

Beharrezkoa bada, kontsultak elkargoko Zerbitzu Juridikoetara bideratzen dira, kompetentzia profesional eta laboral arloetako aholkularitza osatzen dutenak.

Azkenik, industri ingeniariaren eskumen profesionalen defentsarako ekintzak aipatu behar dira, Udalek eta beste Erakunde Publikoek egiten dituzten kontsultei eta erresoluzioei erantzuteko txostenak eta komunikazioak idatziz.

#### 7.4. ARAUDI ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Elkargoak informazioa ematen jarraitzen du jarduneko elkargokideei eragiten dieten lege arloko berrikuntzen inguruan. Gainera, gogora ekarri nahi ditugu indarrean dauden hitzarmenak eta araudia eguneratzeari buruzko zerbitzu berriak.

##### AENOR hitzarmena

2009tik AENORek eta Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak sinatutako hitzarmena dauka BIIEOk. Horri esker gure elkargokideek [UNE arauen inguruko on-line kontsulta](#) postu bat daukate, [doakoa](#) da eta gure bulegoetako kontsulta gelatik egin daiteke sarbidea.

##### LEGISTEC

[LEGISTEC](#) informazioa, kudeaketa eta eguneratzea on-line egiteko lege tresna da, BIIEOk elkargokide guztiei web bidez eskaintzen diena.

Aplikazio horri esker, sarbidea erabiltzaile gakoaren bidez duena, elkargokide bakoitzak informazio zuzena eta pertsonalizatua eskuratu dezake, eta berari dagokion Legeriari buruzko Datu Basea konfiguratzeko aukera dauka, bakoitzaren espezialitate profesionalaren eta jarduerako arlo espezifikoaren arabera.

#### 7.5. ENPLEGURAKO JARDUERAK

Elkargokideen enplegua eta promozio profesionala sustatzeko asmoz, BIIEOk honako zerbitzuak jarri ditu elkargokideen esku: lan poltsa, elkargokide txanda eta profesionalen direktorioa.

Zerbitzu horien bidez, [1.500 profesionalak](#), [elkargokideak nahiz atxikiak izan](#), enplegu aukerak bilatzen dituzte, bai besteren konturako kontratu baten bidez, bai norbere konturako zerbitzuak emanez edo kide diren sozietateen bidez:

2015eko Enplegua	Lan poltsa	Elkargokide txanda	Profesionalen direktorioa	Izen emateak guztira
Izen emandako elkargokideak	1.400	41	59	1.500

##### Langabeak

Langabe kopurua [%15 jaitsi da 2015ean](#), 2014an erregistratutako datuekin alderatuta. Enplegu poltsan izena emandako guztien artean, 85 profesionalak adierazi dute langabezia daudela (izena emandakoen %6,4 eta [elkargokide guztien %2,5](#)).

Horiei guztiei Elkargoak [langabeen kuota murriztua](#) aplikatzen die (6€/hiruhileko) eta BIIEOk antolatutako prestakuntza [ikastaroetan %50eko deskontua](#) dute.


Guztira, honela zenbatu daitezke laguntza horiek:

<b>Langabeei laguntzak</b>	<b>2015</b>
----------------------------	-------------

▪ Elkargokidetza	6.942 €
▪ Prestakuntza	4.095 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.037 €</b>

## Bilakaera

Grafikoak 2008tik jasotako lan eskaintzek eta elkargokide txandaren eskaerek izandako bilakaera erakusten du, baita 2014an hasitako joera aldaketa ere.



### 7.5.1. LAN POLTSA

Lan poltsak **295 lan eskaintza** izan zituen 2015ean, 2014. urtearekiko %50eko baino gehiagoko hazkundera.

Era berean, gure elkargokide eta atxikien erantzuna handituz doa. **2.161 CV** baino gehiago jaso dira, eta enpresa eskatzaileetara bideratu dira.

**99 enpresak** erabili dute lan poltsa, horietatik 53k langile hautaketan jarduten dute eta **46 industriak edo ingeniariak** izan dira, beren erakundeentzat hautaketa prozesuak zuzenean agitaratzen eta egiten dituztenak.

### 7.5.2. ELKARGOKIDE TXANDA ETA PROFESIONALEN DIREKTORIOA

Elkargokide txanda ezartzen da jardun libreko edo ingeniari-tza sozietateetako kontratazioa ahalbidetzeko, Elkargokide kontsultak egiten dituzten herritarrei proiektu bat egiteko, txosten bat eskatzeko, peritatze bat, egiaztagiri bat edo edozein ingeniari-tza zerbitzu puntual bat eskatzeko.

Halaber, zerbitzu honetatik peritu judzialen zerrendak egiten dira eta aldioro bidaltzen dira Eusko Jaurlaritzara Prozedura Judizialetan parte hartzeko.

Aurten [41 elkargokidek](#) eman dute izena eta zerbitzuak eskaintzen dituzte gaitutako 22 espezialitateetan. Herritar eta entitateen aldetik [22 eskabide zuzen](#) erregistratu dira guztira.

Bestalde, [Profesionalen Direktorio](#) zerbitzuak [59 elkargokide](#) ditu izen emanda indarrean jarri diren arlo tekniko horietan. Bertan elkargokideek izena eman dezakete doan beren zerbitzuak eskaini nahi dituzten jarduera arloetan Elkargoaren webaren bidez.

[BIIEOren webean argitaratutako zerrenden](#) bidez, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek sarbidea dute izen emanda dauden ingeniarien harreman profesionaleko datuetara; baita haien esperientziari eta prestakuntzari buruzko informaziora ere, elkargokideek beraiek aurkezpen modura sartu dutena.

### 7.5.3. GAZTEAK ETA ENPLEGUA

Bizkaiko Ingeñariaren Elkargoak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen 2014an [Ahalbidetu Elkartearekin](#), unibertsitateko gazteak enpleguan sar daitezzen erraztera bideratutako programa bat garatzeko: [Eginez Ikasi-Aprender Haciendo](#).

LANBIDEk ziurtatutako Programa bat da eta Bilboko Udalaren babesarekin dauka, BILBAOEKINTZAREN bidez. Bere [babesaren](#) bidez [BIIEOK](#) instalazioak lagatzen ditu lan eta mentorizazio saioetarako, lan elkarriketak eta aurkezpenak egiteko eta lagundu egiten du mentoreak eta enpresak erakartzen prestakuntza aldia amaitu ondorengo praktiken garapenerako.

2015-2016 ikasturtean programaren 3. edizioa egin da eta Elkargoak berriro egin du lankidetzaz konpromisoa. 2015-2016 ikasturteko emaitzak erakusteko datu batzuk doaz segidan:

EGINEZ-IKASI Aprender Haciendo	Taldeak	BIIEOKo mentoreak	Ikasleak hasieran	Programa amaitu duten ikasleak	Kontratuak enpresetan
2015-2016	2	5	48	32	22

Nabarmendu nahiko genuke elkargoko [5 Industri Ingeñariaren](#) ekarpen altruista. Mentore gisa jardun dute, eta batzuk Ahalbide Fundazioko eta Eginez-Ikasi ekimenaren sortzaileak, sustatzaileak eta kudeatzaileak dira.

### 7.5.4. JARDUERA LIBREA - LAABren MUTUALITATE ALTERNATIBOA

Gero eta ohikoagoa da elkargoko ingeniariak beren ibilbide profesionalari hasiera ematea beren konturako ingeniari gisa lanean, titulatu berriak izan, esperientziadun profesional edo baita erretiroaren adinean dauden profesionalak baina lan bitzita luzatu nahi dutenak ere.

Horiei guztiei elkargoko industri ingeniari guztiek eskuragarri duten LAABren (Langile Autonomoen Araubide Berezia) Mutualitate Alternatiboaren aukerak abantaila handiak eskaintzen dizkie, besteak beste:

- ✓ Jarduera Librea besteen konturako jarduerarekin edo erretiroarekin bateratzeko aukera ematen die, Gizarte Segurantzaren kotizazioak handitu gabe eta prestazioko eskubideak galdu gabe.
- ✓ Kapitalizazio indibidualeko sistemaren aldeko aukera egitea LAABko kuotak baino kuota txikiagoekin, eta LAABn sartzeko aukerarekin nahi duten unean.

Elkargoak informazioa ematen du eta harremanak ahalbidetzen ditu gure lanbiderako aitortuta dauden bi Mutualitateekin: [AMIC](#) eta [Kataluniako Elkargoko Ingeñariaren Mutua](#).



## 7.6. PRESTAKUNTZA JARDUERAK

Lehen aipatu dugun bezala, 2015ean egin diren prestakuntza jardueren emaitzek ekitaldirako aurreikusitako helburu guztiak gainditu dituzte. Izan ere, azken 5 urtean jarduera honen hazkundea etengabea izan da:

	2011	2012	2013	2014	2015
<b>Jarduerak</b>	<b>26</b>	<b>43</b>	<b>45</b>	<b>39</b>	<b>52</b>
1. Ikastaroak	4	19	16	18	23
2. Hitzaldiak	9	14	14	12	15
3. Kanpoko prestakuntza	13	10	15	9	14
<b>Asistentzia</b>	<b>365</b>	<b>682</b>	<b>769</b>	<b>798</b>	<b>817</b>
1. Ikastaroak	62	301	340	376	336
2. Hitzaldiak	303	381	429	422	481
3. Kanpoko prestakuntza	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	299
<b>Diru sarrerak</b>	<b>13.150 €</b>	<b>30.504 €</b>	<b>70.548 €</b>	<b>81.029 €</b>	<b>113.124 €</b>

BIIEOren prestakuntza programa egituratzen da eskaintza zabala eraikitzeko bai [Prestakuntza Teknikoan](#) (Ingeniaritza Mekanikoa, Elektrikoa, Prozesuetakoa, Eraikuntza eta Eraikinak, Energia, Ingurumena, eta abar), bai [Kudeaketan eta Zeharkako Gaitasunetan](#) (Plangintza eta Kudeaketa, Pertsonak, Estrategia eta Berrikuntza, Ekintzailletza, eta abar), ingeniariaren garapen profesionala ahalbidetuko duena egungo merkatuan eskatzen diren beharretara egokituta.

Halaber, prestakuntza eskaintza erreferentziazko entitateekin egindako hitzarmenekin osatzen da, besteak beste:

- DEUSTO BUSSINES SCHOOL
- ESEUNE
- EEN eta C2B
- Traintium
- Innotec
- Eadic
- Laguntzak

Aurreko ataletan aurreratu dugun bezala, Teknologia eta Prestakuntza Batzordeak interes eta kezka handia du [langabezia](#) egoeran dauden kideak laguntzeko.

2015ean zehar, aurreko ekitaldietan bezala, kolektibo honi [laguntzak](#) eman zaizkio eskainitako ikastaroak egiteko. Horrela **4.095 €** bideratu dira %50eko deskontuak aplikatzeko elkargokide diren eta [langabezia dauden 32 ingeniarien](#) matrikuletan. Horrek emandako ikastaro ezberdinetan [matrikulatuaren %10](#) suposatzen du gutxi gorabehera.

- Ikastaroak

Guk antolatutako ikastaroetan nabarmentzekoa da erregistratutako **izen emate handia**, eskainitako **plazen %60tik** gorakoa, eta jarduera gehienetan jasotako asebetetze indize altuak, **batez beste 8,3 puntu**ko balorazioarekin programatutako ikastaroetan. Ondoren jaso da antolatutako ikastaroen zerrenda:

Arlo Teknologikoko ikastaroak	Orduak	Asistentzia	Balorazioa
1. Ahorro en la contratación de tarifas energéticas (On-Line COIINA/ CGCII)	70	1	
2. Curso básico de Diseño de Instrumentación	16	19	7,6
3. Curso de diagramas de tuberías e instrumentos P& ID	16	15	8,5
4. Curso de Diseño de Tanques de Almacenaje (API 650)	16	15	8,7
5. Curso de Instrumentación de Campo en plantas industriales	16	13	8,7
6. Curso de preparación para la obtención de la Certificación PMP® / CAPM®	40	22	8,5
7. Curso de Recipientes sometidos a presión ASME VIII práctico y simplificado	16	24	8,8
8. Curso Diseño de Intercambiadores de Calor de Carcasa y Tubos	16	18	8,5
9. Curso sobre Diseño de Intercambiadores de calor de Carcasa y Tubos	16	25	8,9
10. Gestión Documental aplicada a Proyectos Industriales	8	18	7,6
11. Gestión y Cálculo de la Huella de Carbono (On-Line; COIINA/CGCII)	40	2	
12. Instalaciones y seguridad industrial en atmósferas explosivas (ATEX)	24	22	8,0
13. Integración ANSYS-CATIA (Optimización CAD-CAE)	16	9	8,4
14. Introducción al diseño mecánico con Catia	20	6	7,6
15. Medidas Eléctricas	12	13	8,9
16. Modelo 140 - Libro de registro de operaciones económicas	5	16	8,6
17. Nueva Norma ISO 9001:2015. Entendiendo el enfoque y preparándose para la transición	8	20	7,8
18. Optimización de Diseños y Estudios de Contactos con Ansys Workbench	20	7	8,6
19. Protecciones diferenciales	12	12	9,1
20. Diseño y cálculo de estructuras de acero según EAE	100	15	7,6
21. Luminotecnia, iluminación y alumbrado exterior	16	17	7,1
22. Perturbaciones Eléctricas: Efectos y soluciones en instalaciones industriales o de servicios	12	25	8,4
23. Rehabilitación Energética: Toma de datos y propuestas de mejora en la Certificación Energética de Edificios (On-Line COIINA/CGCII)	60	1	

Arlo Teknologikoko ikastaroak	Orduak	Asistentzia	Balorazioa
Aurrez aurreko ikastaroak GUZTIRA (24tik 21)	405	331	8,295

▪ Hitzaldiak eta Jardunaldiak

Asistentzia askeko Hitzaldiek eta Jardunaldiek elkargokideen arteko harremanak sustatzen laguntzen dute gaur egungo gaien inguruan, betiere eztabaida biziz jarraituta.

Hitzaldiak eta Jardunaldiak	Laguntzaileak
1. 18 apuntes del emprendedor	RDT ENGINEERS CAPITAL, S.L.
2. Del PERFIL TÉCNICO al PERFIL GESTOR: Consejos para retos profesionales de ingenieros	DEUSTO BUSINESS SCHOOL
3. Evolución de las Instalaciones Siderúrgicas SXIX - XXI	GERDAU I+D EUROPA S.A.
4. Historia del Puerto de Bilbao	José M <sup>a</sup> Navajas Larrabeiti
5. INGENIERÍA Y MANAGEMENT: Retos para la creación de valor y la dirección de empresas 2015-2020	ESEUNE BUSINESS SCHOOL
6. La Industria 4.0 - LA FÁBRICA DEL FUTURO	Fundación TECNALIA Research & Innovation
7. La minería en Bizkaia y su influencia en el desarrollo de la provincia	Rafael Hidalgo Seguro
8. Marketing para Ingenieros: Orientación al mercado y al cliente	DEUSTO BUSINESS SCHOOL
9. XXI Semana Europea de la Gestión Avanzada: IMPULSANDO UNA FABRICACIÓN COMPETITIVA: cómo pasar la barrera de la investigación a la aplicación y llegar a la Industria 4.0.	ETSI de Bilbao UPV / IK-4 Tekniker / Fundación TECNALIA Research & Innovation
10. BIOMETANO 2G - Producción de gas natural por gasificación y metanación de biomasa lignocelulósica	ETSI de Bilbao UPV Dpto. Ingeniería Química y MA
11. La Venta Creativa y cómo aumentar tus ventas y resultados (DIRIGIDO A DUEÑOS DE NEGOCIO Y DIRECTORES GENERALES DE EMPRESA )	SMI / LMI Spain
12. La Venta Creativa y cómo aumentar tus ventas y resultados (DIRIGIDO A MANDOS INTERMEDIOS)	SMI / LMI Spain
13. Seguridad en infraestructuras críticas: tecnologías específicas aplicadas a la protección	CEPREVEN
14. Soluciones Tecnológicas para Redes Eléctricas Subterráneas y Submarinas	NEXANS IBERIA, S.L.
15. El Concierto Económico Vasco	Pedro Luis Uriarte
16. Finanzas para no financieros: Introducción a la Bolsa	Caixa de Credit dels Enginyers

Hitzaldietara 481 lagun bertaratu dira guztira. Nabarmentzekoa izan da ingeniarien bilakaerari buruz "*perfil teknikitik perfil kudeatzaile*" izena zuen DBSren hitzaldiek izan duten presentzia, izen emandako 73 lagunekin.



- Kanpoko prestakuntza

Elkargoak berak antolatutakoen osagarri gisa, gero eta Prestakuntza Entitate eta Industria Enpresa gehiagok eskatzen dituzte lokalak Elkargoan beren ikastaroak emateko edo beren produktuen aurkezpen teknikoak egiteko.

Ondoren aurkezten dira BIIEOren instalazioetan egindako Kanpoko Prestakuntzako ikastaroak, eta gure elkargokideen eskura jarri direnak:

Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak	Entitatea
1. Calderas industriales: innovación aplicada a la productividad de su negocio	Bosch
2. Certificación Lean Manufacturing	Instituto Lean Management
3. Curso Auditor Energético en la Industria (2ª convocatoria)	EDE Ingenieros
4. CYPELEC REBT y Soluciones para exigencias básicas HE-0 y HE-1 del CTE	CYPE
5. Infraestructura para la recarga del Vehículo Eléctrico y requisitos de la instalación según el REBT	FFII
6. Innovación y Desarrollo en grupos contra incendios y grupos de presión. Tecnología BIM	Ebara
7. Jornada Técnica: Actualización del DB HE 2013. Ahorro de energía y la ventilación eficiente	Siberzone
8. KALKENER.COM - Aplicaciones on-line para el cálculo del ahorro energético	Kalkener
9. Nuevo Reglamento sobre Condiciones Técnicas y Condiciones de Seguridad en Instalaciones de Alta Tensión (3ª edición)	FFII
10. Optimizar la gestión del despacho de ingeniería con Avant Manager: mayor eficiencia y productividad	Avant manager Eginysers
11. Planificación y secuenciación de la producción o cómo mejorar el servicio al cliente, aumentar la productividad y optimizar el inventario	EQ System
12. Requisitos de Seguridad en Máquinas. Directiva 2006/42/CE	FFII
13. Requisitos de la Directiva 2004/108/CE de Compatibilidad Electromagnética (EMC)	FFII
14. Workshop Liderazgo y Organización	Instituto Lean Management



## 8. GIZARTE EKINTZA

Elkargoan gizarte eta finantza arloan egin diren jarduerak azaltzen dira jarraian.

### 8.1. MUTUALITATEA

AMICekin sinatuta dagoen aseguru kolektiboaren produktuak indarrean eta eskuragarri jarraitzen du gure elkargokideentzat, baina Langile Autonomoen Araubide Bereziaren (LAAB) tresna alternatiboa izateko ahalmena galdu egin du.

2002an onartutako eraldaketa garrantzitsuaren ondoren, Mutualitateak heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioa soilik gordetzen du, eta horrek gure kolektiboaren barnean dauden aurreikuspen xedeak bete egiten ditu.

2015ean ezbeharren kopuruak txikia izaten jarraitu du, kolektiboak duen egonkortasun maila ohikoen barnean, azken 5 urteak kontuan hartuta behintzat. Mutualitateak urte horretan sortu dituen prima gordinen guztizko zenbatekoa 877.350 eurokoa izan da. Horietatik Bizkaiko Elkargoko mutualistei 126.340 euro dagozkie (%14,4). Urte honetan 11 kasutan estali dira ezbeharrengatiko prestazioak, 182.707,98 euroko zenbatekoagatik, eta horietatik 2 ezbehar Bizkaiko kideenak izan dira.

### 8.2. KULTURA ETA GIZARTE EKINTZA

#### ▪ Bizkaiko Ingeniarien Musika Elkarte.

2015ean zehar, Bizkaiko Ingeniarien Abesbatzak 14 Kontzertu eman zituen guztira.

Honakoak izan ziren aipagarrienak:

- ✓ Bizkaiko Abesbatzaren 42. Asteko Kontzertua, otsailaren 6an Begoñako Andra Mariren Basilikan.
- ✓ Bizkaiko Ingeniarien Abesbatzaren XVIII. Urteurreneko kontzertua, otsailaren 28an izandakoa.
- ✓ Euskaldunan, ingeniariari diplomak emateko ekitaldi akademikoan emandakoa, apirilaren 27an.
- ✓ Zendutako kideen aldeko Ingeniarien Meza, maiatzaren 6an, San Jose de la Montaña Elizan (Agustindarrak).
- ✓ IV. Kontzertu Sakroa, martxoaren 15ean Xabierko San Frantzisko Elizan izandakoa.



- ✓ Dublinera bidaia urrian. Saint Mary's Pro Cathedral eta Purcell House Chapel izenekoetan eman zituzten kontzertuak, eta ikus-entzule ugari izan ziren.
- ✓ Azaroaren 20an Santa Cecilia jaialdia, San Jose de la Montaña elizan.
- ✓ Eguberriko Kontzertua, abenduaren 18an, Karmengo Gure Amaren Parrokian.

Jarduera handiko taldea da eta ingeniariak edo horien senideek parte har dezakete.

Bere web orrialdea du: <http://www.coroingenierosbizkaia.com/Horrela>, hedapen handiagoa ematen diete beren jardueri.

#### ▪ Bidaia.

Bidaia labur bezala Extremadurara bidaia egin da: Konkistatzaileen Ibilbidea, 58 lagunren parte hartzearekin, arrakasta handia izan zuena bertaratu zirenentzat.

Kubarako bidaia egin da 78 lagunren parte hartzearekin. Irlako hiri nagusiak eta gune turistiko garrantzitsuenak bisitatu dituzte eta bertara joan direnek balorazio ona egin dute.

#### ▪ Burdinola Kluba.

Bere jarduerarekin jarraitzen du, hiru astetik behin txangoak antolatzen. 15 txango egin zituzten 2015ean, probintzia hauetan: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Kantabria, Burgos eta Errioxa. Horien artean, ekainean Montes de Oca - Albako Urtegira egindako asteburuko txangoa aipatu behar dugu bereziki. Txangoetan mendiko ibilbidea eta bazkaria egiten dira. Gainera, bazkalostean denen artean abesti batzuk kantatu ondoren, intereseko lekuren batera kultur bisita egiten dute.

Jardueretako parte hartzea oso altua izaten ari da, eta helburuak betetzen ari dira: kidetasuna, ariketa fisikoa, natura eta kultura. Helburua da pixkanaka espiritu hori duten kide berriak gehitzea.

### 8.3. ELKARTASUNA: IC-LI.

Urte bat amaitu eta atzera begiratzen dugunean, lortu ez ditugun erronkengatik sentazio gazi-gozo bat izaten dugu: Burutu nahi genituen ekintzak edo esku artean hartu nahi genituen proiektuak. Baina hori gertatzen denean, ICLI goraiatu behar dugu, lantaldea adibidez, beren ekarpen txikiarekin norbaiten bizitza hobetu dezaketela jakiteak ematen dien pozak bultzatuta lan egiten dutelako.

Barne mailan aurtengoa webgunearen urtea izan da, zalantzarik gabe: [www.icli.info](http://www.icli.info). [Aurrekontu handirik ez duen ICLIn mailako GGKE batentzako](#)





[erronka handietako bat](#). Eraitza oso pozgarria izan da eta orain gure esku dago eguneratuta izatea, gaur eguneko eta intereseko edukiak jarriz, eta hori guztia Facebook eta Twitter bezalako ohiko sare sozialetan gure presentzia gutxitu gabe. *IClik eboluzionatu egiten du garai berriekin batera*.

*IClik 20 urte bete ditu*. Ez da erraza izan denbora honetan gure boluntariora filosofiarekin aurrera jarraitzea, guztiz profesionalizatuta dauden erakundeekin lehiatuz; baina lortu egin dugu, eta oso ondo egin dugu, gainera. 2016an ospakizun modura hainbat ekitaldi antolatuko ditugu hiru euskal lurraldeetan.

*Proiektuei* dagokienez, berriro aipatu behar dugu erakundeen eskakizun maila handia eta oraindik ere mantentzen diren aurrekontu murrizketak. Gainditu beharreko oztopo nagusia ez da izaten proiektuak lortzea, baizik eta Mendebaldeak dituen eskakizunen arabera egokitzea eduki eta forma aldetik, Hegoaldeko lan egiteko moduaren arabera gaizki inposatuta baitaude. Programa, espazio eta gurekin lan egiten duten bertako kideei dagokienez denboran zeharreko jarraitutasunari eutsi diogu. Horregatik, *gardentasuna, dedikazioa eta konpromisoa* eskatzen dugu, gure bazkide, laguntzaile eta emaileen aurrean balio horiekin erantzun behar baitugu.

Urtean zehar garapenerako *lau lankidetzako proiektutarako finantzazioa lortu dugu, 125.000 euroko zenbatekoa* hain zuzen, Bilbo, Barakaldo, Laudio eta Portugaleteko udalek emandakoak.

Bestalde, *sentiberatzeari* dagokionez, Zabalketa izeneko GGKE buru izanik, *garapenerako hezkuntza* proiektu batean ari gara lanean, eta bertan gure inguruko beste erakunde batzuek ere hartzen dute parte. Horren bitartez gure gazteengana hurbiltzen gara, errealitate ahulagoetako errealitateak ezagutu ditzaten eta haien aurrean erreakzionatzen jakin dezaten. Ur eta saneamendurako eskubideari buruzko erakusketa ibiltariekin osatuko da programa, Bizkaiko hainbat udalerrri bisitatuko dituena.

Era berean, lankidetzak dituen onuren inguruan herritarrak sentiberatzeko xedeaz, gure tokiko kide Theo Soumék hitzaldi bat eman zuen Beninen egin duen lanari buruz. Laudio eta Barakaldoko elkartasun azoketan ere hartu genuen parte, bai eta Getxotik Mundura-n ere, lankidetzak jarriz pertsonen zerbitzura.

*Gardentasunarekiko* gure konpromisoari fidelak izanik, IC-LIren kontuak kanpoko enpresa batek ikuskatuak izan dira.

#### 8.4. EUSKAL KULTURA

EKB (Euskal Kultura Batzordea) Elkargoa euskararen aldeko jarduerak antolatzeaz arduratzen da, eta elkargokideei zerbitzua ele bietan eskaini ahal izateko lana kudeatzen du.

- Mazarredotik



Euskaraz irakurtzeko zaletasuna areagotu eta elkargokideei informazioa bi hizkuntzetan emateko asmoz egiten da.

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, elkargokideei bi ale bidaliko zaizkie. Bertan islatzen dira Elkargoari eta Elkarteari dagozkion jarduerak, Batzorde honek jasotakoak.

- [Hitzaldiak](#)

Euskaltzaleen bilgune izatea eta euskararen erabilera bultzatzea da horien helburua.

Aurten hitzaldi bat antolatu da:

Hitzaldiak	Data	Hizlaria
Formula Student Bizkaia: automobilgintza arloko ingeniarietza Euskal Herriko Unibertsitatean	2015/06/10	Javier Corral Saiz

- [Diru laguntzak](#)

2015. urteari dagokion laguntza guztia jaso da Bilboko Udaletik, Bizkaiko Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik.

- [Euskarazko Kontakizun Lehiaketa.](#)

2015ean, elkargokideentzat eta euren senideentzat antolatzen dugun lehiaketa honen XIX. edizioa izan dugu.

- [Euskara Plana. Kontseilua](#)

Elkargoa urtero ari da lortzen Bai Euskarari Ziurtagiria (zerbitzua euskaraz). Horretarako, Ziurtagirien Elkarreak lorpenen jarraipena egiten du urte amaieran, ebaluazio bileren bidez.

- [Ikasketa Amaierako Proiektua euskaraz](#)

Industri Ingeñariaren titulazioko Karrera Amaierako Proiektua euskaraz egiten badute diru laguntza jasoko dute Bilboko Ingeñarietza Teknikoko Goi Eskolako ikasleek. Horretarako Elkargoan aurkeztu, elkargokide bihurtu eta diru laguntza eskatu behar dute.

Urte amaieran, EKBk aurkeztutako proiektuak aztertzen ditu, eta aurrekontuan sartutako zenbatekoa banatzen da haien artean.

- [Berria egunkaria](#)

“Berria” egunkariarekin hitzarmena sinatu ondoren, harpidetza nahi duten elkargokideei prezio merkeagoan eskaintzen zaie egunkaria.



## 8.5. BGAE

Ondoren gure BGAEren zenbateko garrantzitsuenen laburpena emango dugu, apirilaren 14ko Batzar Nagusi Ohikoak onartu zituenak.

2015ean Ingeplanen urteko errentagarritasuna %3,52koa izan da; Planingeren errentagarritasuna urtean %6,53koa izan da, eta Ingeplan Monetarioen errentagarritasuna -%0,29koa.

Ingeplaneko bazkideen (720) xehakapena honako hau da: 201 Bizkaian, 183 Araban eta 336 Gipuzkoan; Planinge-ren kasuan (868), 120 Bizkaian, 205 Araban eta 543 Gipuzkoan; Ingeplan Monetarioan berriz (35), 34 dira Bizkaian eta 1 Gipuzkoan, pasa den urteko datuen arabera.

BGAEren 2014ko urteko kontuen ikuskaritza PKF Attest-ek egin du.

Une honetan, Borondatezko Aurreikuspen Entitateei buruzko 5/2012 Legearen Arautegia onartzen duen 203/2015 Autonomia Dekretua indarrean sartu denez, horri egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak egiten ari dira.

## 8.6. DYNA ALDIZKARIA

Kantabriako Elkarteak baja eman zuen ustekabeen 2015. urte erdi aldera eta horrek aurreikusitako aurrekontuan 1.000 €-ko gutxitzea suposatu zuen. Hala ere, 2015eko ekitaldian salmenten zenbatekoa 190.913 eurokoa izan zen eta zergen ondoreneko itxieran 9.292 euroko irabazia izan du.

Emaitza hori kausa positibo eta negatiboen nahasketa izan da, baina zorionez lehenek pisu handiagoa izan dute eta horregatik itxiera zenbaki beltzetan gelditu da.

### Kontrako kausak:

- Aurrekontua onartu ondorenean gertatutako bazkideen harpidetza kolektiboen bajak
- Publizitatearen portaera txarra, aurreikusitakoarekiko %45eko desbideratze negatiboarekin
- Ohiko harpidetzen helburua ez lortu izana

### Aldeko kausak:

- Inprimatutako harpidetzak mantendu izana
- Egileen sarrerren hobekuntza (artikuluko prezio eta kobrantzen hazkuntza, ez orrialdekoa), aurrekontuarekiko %48ko desbideratze positiboa lortuz
- Royaltiengatik sarrerren hobekuntza txikia
- Eragiketa eta administrazio gastuei eutsi izana



- Injeniaritza grafikoaz egindako kongresuari buruzko monografiko baten argitalpena

DYNAk 2015ean 0.179ko baloreko eragin faktorea lortu zuen JCRn (4. kuartila), aurreko urtearekiko jaitsiera txiki batekin (0.200) eta emaitza antzekoa lortuz: 0.170 Scopusen SJRren 3. kuartilean. Bi indizeetan lortutako eragin faktoreen balioek DYNAren egonkortasuna berresten dute.

Urte honetan produktu berriak sortu dira, DYNA Koadernoan formatuan argitaratuta zeuden artikulua baliatuz, ondoko gaiari buruz: Project Management eta Energia

Aurten burututako hobekuntza tekniko batzuk honakoak izan dira: Babes eta probetarako zerbitzari berri bat instalatzea, gaztelania eta ingeleseko artikuluetarako open access egokitzea, daten araberrako harpidetzak kontrolatzea, XML formatuko Recyt artikulua esportatzea...



## 9. KALITATE ETA INGURUMEN SISTEMA INTEGRATUA

Elkargoak 2014an Ingurumen Kudeaketako Sistemaren GA-2008/0763 eta Kalitatearen Kudeaketaren ER-1729/2088 Ziurtagiriak berritzea lortu zuen. Horrek gure Kudeaketa Sistema UNE-EN ISO 14001 eta UNE-EN ISO 9001:2008 arauekin bat datorrela adierazten du.

Abenduan AENOREk 2015eko ekitaldiari dagokion segimendu ikuskaritza egin du, eta ezadostasunik aurkeztu gabe amaitu zen.

## 10. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO SISTEMAK

BIIEOk komunikazioa eta kontaktua dauka elkargokideekin eta atxikitakoekin, modu hauetara:

- [Weba eta Buletinak](#)
- [App-BIIEO. Aplikazio berria 2015ean](#)
- [Sare Sozialak](#)

Ondoren aurkezten ditugu egin diren ekintzek azaltzen dituzten zenbaki eta jarduerak:

- [Web orria](#)

Elkargoak Web orrian eskaintzen ditu bere elkargokideek aurrez aurre balia ditzaketen zerbitzu ia guztiak. Horrela ingeniari guztiak daukate zerbitzu hauetarako sarbidea: On-line elkargokidetzea, Ikus-onespen elektronikoa eta bestelako tramitazioak, Ikastaro eta Hitzaldietarako Izen ematea, On-line Denda...

Era berean, webgunea etengabe eguneratzen ari da elkargokideei intereseko informazioa emateko.

2015ean guztira [277 albiste](#) argitaratu ziren, eta horietatik 139 interes handikotzat sailkatuak izan dira. Berri horiek [40 Albiste buletin](#) bidez zabaldu dira. Era berean, albiste garrantzitsuagoetarako [10 jakinarazpen berezi](#) prestatu dira.

Era berean, [Enplegu Buletin](#)ak ere egiten dira, zerbitzu horretan izena ematen duten elkargokideei bereziki zuzenduak.

[Web orriaren estatistikak](#):

	Bisitak	Ikusitako orriak	Batez besteko denbora	Saio berrien %
<b>2014</b>	55.366	248.417	3,54 min.	49,15
<b>2015</b>	76.115	282.926	3,72 min.	54,00



Gure Webgunearen ikusgarritasun eta irisgarritasuna hobetzeko lanean jarraitzen dugu, eta ondorengo [hobekuntzak](#) egin ditugu:

- ✓ [Diseinu egokitua](#), webaren tamainari dagokionez nabigatzeko erabiltzen diren gailu ezberdinetara egokitu dadin, (PC, Tableta, Smartphonea eta abar).
  - ✓ [Weba kargatzeko denbora murriztea](#)
  - ✓ [SEO posizionamendua hobetzea](#)
- [App-BIIEO](#). Aplikazio berria 2015ean

Mugikorretarako aplikazio berria (Android eta Apple) gure elkargokideen eskura dago 2015eko otsailetik.

BIIEOren aplikazioa elkargokidearen gailuan exekututzen da, eta eskatutako datuak modu berean egongo dira eskuragarri (eguneko 24 orduz, urteko 365 egunez).

Aplikazio horrek menu garrantzitsuenak dauzka, elkargokideak BIIEOren zerbitzuak eskura izateko arin eta erraz, edozein lekutatik, interneterako konexioa duen dispositibo mugikor batetik.



- ✓ [Albisteak](#)
- ✓ [Tramitazioak](#): burutzen ari diren tramitazioen egoeraren jarraipena egin ezazu
- ✓ [Ekitaldiak](#): jarduerak kontsultatu eta izena eman ezazu
- ✓ [Lan eskaintzak](#): argitaratutako azken eskaintzak kontsulta itzazu
- ✓ [Elkargokideen eremua](#): zure datu pertsonal eta profesionalak kudeatu
- ✓ [Kontaktua](#)
- ✓ [Informazioak](#), ikusi argitaratutako dokumentuak
- ✓ [Hobespenak](#), konfiguratu gure aplikazioa zure gustura

- [Sare Sozialak](#)

Elkargoa [Linkedin](#) eta [Facebook](#) sare sozialetan dago. Bertan, gure berri eta jarduerarik garrantzitsuenak eta interesgarrienak helarazten dizkiegu elkargokideei eta gure jarraitzaileak diren eta horietan parte hartzen duten profesionalari.

Gaur egun, [4.857 jarraitzaile](#) ditugu.

## 11. HARREMAN ETA JARDUERA INSTITUZIONALAK

- [Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia eta Espainiako Ingeniari Industrialen Elkartearen Federazioa.](#)  
 Bizkaiko Dekanoa industri ingeniarien elkargo guztiak ordezkatu eta elkartzen dituen erakunde nazionalako Diruzain kargua du.  
 Bi erakundeek elkarrekin egin dute lan Industri ingeniarien titulazioa Master titulazio modura aitortua izan dadin, eta MECES 3 maila espainiarrarekin eta EQF7 europarrarekin parekatu dadin, 2015eko uztailen lortu direnak.
- [Eusko Jaurlaritza:](#)
  - [Industria Segurtasuneko Kontseilua](#), BIEOren Zuzendaritzak Euskal Herriko Ingeniari Industrialen Kontseiluaren ordezkaritza dauka.
  - [Ingurumen Saila eta Ihobe:](#)
    - [Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen Kudeaketako Azken Txostenen Egiaztapenerako Arauen aplikazioa](#), 112/2012 Dekretuaren arabera.
    - [Egurtean egindako Arkitektura eta Eraikuntzako Nazioarteko 4. Egurtek Sinposioaren antolakuntzan laguntzea.](#)
- [Bilboko Udala, Hiri Kontseiluan parte hartuz.](#)
- [Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoarekin eta Deustuko Ingeniaritza Fakultatearekin:](#)
  - [Prestatutako ikasketa planei laguntza eta babesa.](#)
  - [Deustuko Industri Ingeniaritzako Masterreko 1. mailako Ikasleei aurkezpena.](#)
  - [Bilboko IGETk antolatutako Enplegu Jardunaldietan parte hartzea.](#)
  - [EHUko Ingeniaritza Kimiko eta Ingurumen Sailarekin, Jardunaldi Teknikoen Antolakuntzan.](#)
- [Euskalit](#), Kudeaketa Aurreratuaren Europar Asteko jardunaldi batean parte hartuz, *LEHIAKORRA DEN FABRIKAZIOA BULTZATZEN*: nola gainditu ikerketaren oztopoa, aplikatzeko eta 4.0. industriara heltzeko.
- [Bilbao Metropoli 30, BasquePro](#) ekimenaren barnean.
- [Ingeniarien Eskolaren Fundazioarekin](#), jarduna 1998an hasi zuena, bere Patronatuan parte hartuz.
- [Tecnalia Certificación](#), Eraikuntzako Produktuak Egiaztatzeko Batzordeko kide modura.
- [Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberarekin](#), bere jardueretan, Arbitraje auzitegietan eta enpresen arteko bitartekaritza prozeduretan lagunduz.